



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Europako Kontseiluaren Bilera (EBTko 50. artikulua)
Brexitaren negoziazioen aurrerapenak
Brusela, 2018ko urriaren 17a

Europar Batasuneko 27 Estatu kideetako Estatururuek eta Gobernuburuek (denek Erresuma Batua izan ezik) bilera egin zuten urriaren 17an Brexitaren negoziazioen egoera berrikusteko. Gailur hori “egiaren unea” izatea espero zen, Brexiterako Europar Batasunaren negoziatzaile Michel Barnier jaunaren arabera. Azkenean, ez da horrela izan. Europako Kontseilua (50. art.) akordiorik erdietsi gabe eta kontontzeke dauden arazoentzako irtenbiderik gabe itxi da.

Gutxienez sei hilabete falta dira Erresuma Batuak EB ofizialki utz dezan. Une honetan, Ateratze Akordioa % 90ean hitzartu da. Hala ere, “*ezer ez da adosten dena adosten den arte*” printzipio negoziatzailearen arabera, funtsezko gaien, hala nola Irlandako mugaren gainean irtenbiderik ez izatearen ondorioz, aurreikusitako datara amaierako akordio batekin iristea arriskuan izan daiteke.

Negoiazioak espero zena baino erritmo geldoago batean aurreratzen ari direla ikusirik, joan den hilabetean, Salzburgoko bilera informalean, EBk Europako Kontseiluaren ezohiko bilera bat deitzea proposatu zuen azarorako, baldin eta Gailur honetako negoziazioetan aurrerapen nabarmena sortzen bazen. Proposamena atzeratu egin dute 27ek, esanez ez dela nahikoa aurreratu. Hala ere, bilera egiteko atea irekita mantentzen da, Barnierrek nabarmen aurreratu dela uste duenean egin dadin.

Izan ere, negoziazioak blokeatuta zeuden joan den hilaren 14tik, igandearekin, EBko eta Erresuma Batuko teknikari-taldeek Brexitaren gainean amaierako akordio bat lortu zutenetik, Barnier eta bere Erresuma Batuko homologo Dominic Raab akordio hori eztabaidatzeko bildu ondoren.

Negoiazioen esparru orokorra une honetan galdera-ikurrez beterik dago. Hala ere, Erresuma Batuko lehen ministro Theresa May, 27en aurrean egin zuen hitzaldian, baikor agertu zen akordio batera iristeko aukeraren gainean.

Egun, aldi iragankorra 2021eko abendura arte zabaltzeko aukera aztertzen ari dira, hau da, hasieran aurreikusi zena baino urtebete gehiago. Horri dagokionez, Mayk azaldu zuen bere ustez, azkenean, ez dela luzapen hori behar izango. Bestetik, Barnierrek ez zuen aldi iragankorra aipatu; baina esan zuen Brexita ordenatua izan behar dela denontzat: “*Denbora gehiago behar dugu eta datozen asteetan lasaitasunarekin eta pazientziarekin lan egiten jarraituko dugu*”.

Beraz, negoziazioek aurrera jarraituko dute, Barnierrek Europako Kontseiluko presidenteari esan arte ezohiko Kontseilu bat deitzeko besteko aurrerapena izan dela.